
MILAKA UME MUTURREKO POBREZIA ETA
GOSETIK ALDENTZEKO BORROKATZEN ARI DIRA

BATU ZAITEZ ALDAKETARAKO



GH kanpaina 2018 –2019

TUTORETZAK



GH kanpaina 2018-2019
HAUR-HEZKUNTZA
Tutoretzak - Otoitzak



JARDUERAK

1. JARDUERA: MUNDUKO ELIKAGAIAK

Lantzen diren gaiak: Iparra/Hegoa, Elikadura
Aurreikusitako denbora: 3 saio, 45'-koa bakoitza
Jarduera mota: jolas-izaerakoa, sormenezkoa

Laburpena:
Mapamundi baten bidez, Iparraldeko errealitatea eta Hegoaldekoa bereiziko ditugu, eta kontinente bakoitzean zer jaten den jakingo dugu.

Helburua:
Gurearekiko desberdinak diren errealitate batzuk badaudela jakitea, eta haur batzuek beste mota bateko elikagaiak jaten dituztela jabetzea.

Materiala:
- Eranskina: mapamundia
- Zinta isolatzaile gorria edo antzekoa
- Janariak inprimatuta
- Haurren marrazkiak

Jarraibideak:

Lehen saioa

Ikasgelan edo korridorean, mapamundi bat eskegiko dugu, neurri handikoa. Bertan kokatuko gara, herrialde gisa. IPARRA/HEGOA egoerari sarrera egingo diogu.
Erdibitu egingo dugu mapa, zinta isolatzaile gorri baten bidez ondo ikusteko moduan; luze-luze ebakiko dugu, Espainiaren azpialdetik.
Bi aldeak izendatu egingo ditugu, eta hauxe idatziko dugu: IPARRA eta HEGOA. Argi geldituko zaigu horrela gu munduaren iparraldean bizi garela.





Eranskina:



Bigarren saioa

- Familiekin lankidetzan egingo dugu honako zeregin hau. Orri bat eramango dute haurrek etxera, egunean jaten duten janari guztia idazteko; adibidez, eskolarik gabeko egun batean, larunbatean, familia osoak zer jan duen jasoko dute (merienda, hamaiketakoa, goxokiak… barnean hartuta).
- Astelehenean, ikasgelara ekarriko dute zerrenda, ikasleek jaten dituzten elikagaien zerrenda bat egingo baitugu.
- Gure inguruan adin horretako neska edo mutiko batek jaten dituen "ereduzko jaki" horien kopuruak eta aukerak erakusteko, zenbait irudi inprimatuko ditugu, eta gure mapamundian, iparraldean kokatuko ditugu, iparraldean bizi baikara gu.

Hirugarren saioa

- Afrikako herrialde batzuetan haurrek zer jaten duten ikertuko dugu… Bi jakiren ardura har dezake haur bakoitzak, eta, horretarako, familien laguntza izan dezakegu. Haiekin batera, honako jaki hauei buruzko informazioa bilatuko dugu:

+ Nshima	+ Acarajé	+ Brik
+ Samosa	+ Agali	+ Robotie
+ Kachumbari	+ Futu	+ Alloco

- Marrazki baten bidez, edo ebakin edo irudi inprimatu baten bidez, zer jaki egokitu zaizkion adierazi behar du haur bakoitzak.
- Jaki guztiak ditugunean, jaki bakoitza zer den azalduko diegu gainerakoei, eta mapamundian kokatuko dugu, dagokion tokian.



2. JARDUERA: GAILETAK GUZTIONTZAT



Lantzen diren gaiak: elikadura, pobrezia
Aurreikusitako denbora: 45'
Jarduera mota: bizipen-izaerakoa

Laburpena:
Jarduera honetan, ikusarazi nahi diegu haur guztiek ez dituztela aukera berak, ez eta janaria ere. Horretarako, rol-joko xume bat erabiliko dugu.

Helburua:
Munduan, hainbat tokitan duintasunez bizitzeko beharrezkoa eta oinarrizkoa dena ez daukaten haurrak daudela ulertaraztea, batez ere, garatzeko eta osasuntsu bizitzeko beharrezko jakiak ez dituzten haurrak.

Materiala:
Gailetak

Jarraibideak:
- Bi taldetan banatuko ditugu ikasleak, eta horietako bati gaileta goxo-goxoak emango dizkiogu, jan ditzaten. Beste taldeari esango diogu ez dagoela gaileta gehiago, eta haiek ezin izango dutela gailetarik jan gaur.
- Minutu batzuetan zain egongo gara bi taldeek nola erantzuten duten ikusteko, eta biribilean eseriko gara guztiok.
- Gogoetari ekiteko erabiliko dugu une hau; azalduko diegu haur asko daudela jatekorik ez daukatenak, batzuek egunean behin soilik jaten dutela, eta, batzuetan, ezta egunean behin ere. Eta batzuk gosez hiltzen direla.
- Gailetarik jan ez duen taldearen erantzuna nolakoa izan den kontuan hartuta, gogoeta amaitu arte itxarongo dugu gailetak emateko, edo, beharrezkoa bada eta kontuan hartuta txikiak direla oraindik, biribilean esertzen garen unean ere eman diezazkiekegu gailetak.



3. JARDUERA: UBUNTU

Lantzen diren gaiak: partekatzea, lankidetza, zuzentasuna.
Aurreikusitako denbora: 45'
Jarduera mota: ipuina

Laburpena:
Afrikako ipuin bat irakurriz, gizabanakoen, kulturen eta nazioen arteko lankidetzaz hitz egingo dugu.

Helburua:
Gauzak elkarrekin sentitzeko, elkarrekin lan egiteko eta besteen zerbitzura egoteko modu bat lantzea, norbaitek edo norbaitzuek zer egin duten kontuan hartuta, eta mundu zuzen, bidezkoago eta sinesgarriago bat eratzen lagundu dezaketela ikusaraztea. Mundu egoistetatik harago joanez eta zuzentasun handiagoan oinarrituta, mundu berri bat eraiki baitaiteke.

Materiala:
Ipuina inprimatuta, haur bakoitzak etxera eraman dezan.

Jarraibideak:
1- Gizabanakoen, kulturen eta nazioen artean lankidetza sustatzen duen afrikar ipuin bat irakurriko dugu.
2- Irakurri ondoren, gogoeta egingo dugu honako galdera hauen inguruan:
   A- Daukazuna besteekin partekatu ohi duzu?
   B- Zuk zerbait ez daukazunean, eta lagun batek badaukanean, gustatzen zaizu lagun horrek zurekin partekatu nahi ez izatea?
   C- Lehen ikusi dugunez, neska-mutil asko daude jatekorik ez dutenak… Uste duzu guziok gauzak elkarrekin partekatuz gosea desagerraraziko genukeela?
3- Ipuina inprimatuta emango diogu haur bakoitzari, eta familiei ematera eta gai horretaz hitz egitera gonbidatuko ditugu.





Ubuntu, lankidetzari buruzko afrikar kondaira bat

Afrikako herrixka batera joan zen behin antropologo bat. Haien kultura ezagutu nahi zuen, eta haien funtsezko balioak zein ziren ikertu nahi zuen. Horretarako, haurrekin jolas bat egitea bururatu zitzaion. Frutaz betetako otarre bat jarri zuen zuhaitz baten ondoan. Eta hauxe esan zien:
- Zuhaitz horretara lehenengo iristen den pertsonarentzat izango da frutaz betetako otarrea.
Baina batere ohikoa ez zen zerbait gertatu zen, gizonak lasterketari ekiteko seinalea egin zuenean: eskutik heldu zioten neska-mutilek elkarri, eta elkarrekin hasi ziren korrika. Guztiak batera iritsi zirenez, guztiek gozatu ahal izan zuten sariaz. Eseri, **eta elkarrekin partekatu zituzten frutak**.
Zergatik egin zuten hori galdetu zien antropologoak, pertsona bakarrak eskura baitzezakeen otarrea. Eta haur batek erantzun zion:
- **'Ubuntu'. Nola izango da zoriontsu gutako bat, gainerakoak triste badaude?**
Haur haren erantzunak hunkitu egin zuen gizona. “Ubuntu” hitza aspaldiko afrikar hitz bat da, zulu eta xhosa kulturan zera esan nahi duena: 'Banaiz, bagarelako. Bizi-filosofia bat da, elkarrekin lankidetzan arituz harmonia lortzen dela sinesten duena; izan ere, pertsona guztiak zoriontsu izatea lortzen da horrela.

OTOITZAK

Abendua

BESTE MUNDU BAT NAHI DUT, MUNDU HOBE BAT

Gure mundua oso polita da, eta oso gauza onak gertatzen dira; baina badakigu ondo bizi ez diren haurrak ere badaudela. Ez dugu haurrak gaizki bizi diren mundurik nahi; mundu hobea nahi dugu.

Eguberrietarako prestatzen ari gara. Aste hauetan, esaldi hau errepikatuko dugu: Etorri, Jesus! Mundu hobe bat nahi dugula esateko modu bat da, Jesusekin maitasuna eta bakea datozelako, Jesusekin guztiok senide garela gogoratzen dugulako, inor ez delako gose, eta ez delako inor bizi kalean… Beste mundu bat nahi dugu, ondo bizi gaitezen; gure adineko haur asko baitaude zer janik ez dutenak, jantzirik ez daukatenak, ez eta lo egiteko tokirik ere…



OTOITZA

Jesus laguna, zatoz, mesedez.
Gure munduan,
haur pobre asko daude.
Zatoz, Jesus, ireki gure begiak,
ukitu gure bihotzak,
eta mugitu gure eskuak,
guztion artean lagun diezaiegun.
Zatoz, Jesus! Lagun iezaguzu
guztiontzat mundu hobe bat egiten.

EGUNERO HOBEA IZATEA

Gutxi barru, Jesusen lagunontzat garrantzi handiena duen festa bat ospatuko dugu: gure artean bizirik dagoela ospatzen dugu, asko maite gaituela, eta ez dela gugandik inoiz bananduko. Zergatik egon nahi du betiko gurekin? Pertsona hobeak izaten lagundu nahi digulako, gero eta gehiago barka dezagun, gure gauzak gero eta gehiago parteka ditzagun… Garizuma (berrogei eguneko aldia) deritzogun garai honetan, egunero pertsona hobeak izan gaitezen gonbita egiten zaigu, gure bizitzak Jesusen bizimoduaren gero eta antz handiagoa izan dezan dei egiten zaigu. Behar-beharrezkorik ez dutelako ondo bizi ezin duten haur askori lagundu ahal izango diegu horrela.

"Luis izena dut, eta 6 urte ditut. Asko gustatzen zait jendeari laguntzea; aurreko batean, lagun bat ikusi nuen negarrez, eta hurbildu egin nintzaion, laguntzeko. Oso pozik jarri zen gero laguna, eta ni ere bai. Gero eta gehiago lagundu nahi dut, zoriontsuago sentitzen bainaiz horrela. Handitzen naizenean, haur behartsuei laguntzera joan nahi dut: ez zait gustatzen haiek horrela ikustea".



OTOITZA

Jesus laguna,
zuri bezala, niri ere
asko gustatzen zait
pertsonei laguntzea.
Zure laguna izan nahi dut, zure antzeko izateko,
gero eta pertsona hobea izateko,
ikaskide, lagun edota anaia edo arreba hobea.
Irakatsi, Jesus, gero eta gehiago laguntzen.

MAITASUNA BETI IRABAZLE


Guztioi gustatzen zaigu irabaztea, baina galtzea ere egokitzen zaigu batzuetan. Bada, aste hauetan, maitasunak beti irabazten duela ospatzen ari gara Jesusen lagunak. Egia da haserretu egiten garela batzuetan, eta liskarrean ibiltzen garela; baina gure lagun Jesusek esaten du elkar maite dugunean, elkarri laguntzen diogunean eta elkarri ematen diogunean, irabazle ateratzen garela beti. Eta horretan gehien iratsi diguna Jesus da, bizirik baitago gure artean gurutzean hil bazen ere, asko lagundu zuelako, asko barkatu zuelako, eta asko eman zuelako… Maite duenak irabazi egiten du beti.

Munduan, haur behartsu asko daude. Gure laguntza behar dute. Zalantzarik gabe, hobeto bizi daitezen laguntzea eman diezaguketen garaikurrik onena irabaztea da.



OTOITZA

Eskerrik asko, Jesus,
irabaz dezakegun saririk handiena
besteei laguntzea dela
gogorarazten diguzulako zuk.
Eman iezaguzu zurea bezalako
bihotz handi bat, munduko
haur guzti-guztiok
zoriontsu bizi gaitezen.



KALEKO HAURRAK

Brasilen, haur asko bizi dira kalean. Ez dakite zer den lo egiteko etxe bat izatea. Ez dakite zer den eskolara joatea ere. Gauza bakarra egin dezakete: bizirik iraun, egunerokoa jasan, ahal duten bezala.

Hamahiru urte ditu Danielek, eta kalean bizi da. Bizirik irauteko, gauza asko egiten ikasi du urteen poderioz: mandatuak egiten, trapuak biltzen, autoak zaintzen, oinetakoak garbitzen, zaborrontzietan bila ibiltzen, limosna eskatzen, turistei eraso egiten…

Ez dago ondo Daniel eta beste haur batzuk horrela bizitzea.



OTOITZA

Jesus laguna,
munduan, kalean bizi dira
haur asko eta asko.
Familiarik gabe, janaririk gabe,
eskolarik gabe…
Ondo bizi daitezen nahi duzu zuk.
Eman iezaguzu guztioi bihotz handi-handia,
haur horiei guztiei laguntzeko.



HAURRAK ETA GERRAK

Lurreko leku askotan, gerrak daude… Eta haur asko hazten dira gerra inguruetan. Ez dute ezagutzen bakea, armen eta tiroen hotsak baino ez dituzte ezagutzen… Etxea galtzen dute askok, eta oso urrutira joan behar izaten dute ihesean. Beste haur batzuk gerrako soldadu izatera behartzen dituzte…


Francisek 11 urte ditu. Oso txikitan, gurasoekin urrutira joan behar izan zuen ihesi, haren herrialdean gerra hasi zelako. Etxea galdu du, eta, duela zenbait hilabetetatik, ez daki non dagoen bere familia… Bakean bizitzearekin egiten du amets, baina gauetan arma hotsa entzuten jarraitzen du, eta triste jartzen da.

Ez dago ondo Francis eta beste haur batzuk horrela bizitzea.



OTOITZA

Jesus laguna,
gerra asko daude gure munduan.
Horrela hazten dira haur asko,
pentsatuz indarkeria baino
ez dagoela munduan.
Eman iezaguzu bihotz handi-handia,
gerrarik gabeko mundu bat,
bakezko mundu bat, eraikitzeko.



GOSE NAIZ

Gosez bizi dira munduan haur asko. Ez dakite zer den egunero jatea, ez eta bi jakiren artetik gustukoen dutena aukeratzea ere. Ez dakite zer den lepo jan ondoren "bete-bete eginda" gelditzea… Gose diren haur horiek jatearekin egiten dute amets. Batzuek pentsatzen dute guztiontzako janaririk ez dagoelako bizi direla gosez; baina gezurra da hori. Nahikoa janari dugu guztiontzat… Zergatik bizi dira, orduan, gosez batzuk? Zergatik kostatzen zaigu horrenbeste partekatzea?

Aruna naiz, 6 urte ditut, eta Indiakoa naiz. Gure familian, behartsuak gara, eta gurasoek ez dute lortzen etxera egunero jatekoa ekartzerik. Gose naiz gaur… Eta egun batean munduko haur guziok egunero jateko zerbait izango dugula egiten dut amets.

Ez dago ondo Aruna eta beste haur batzuk horrela bizitzea.



OTOITZA

Jesus laguna,
min ematen dit Aruna
eta beste haur asko
gosez bizitzeak.
Irakats iezaguzu gure janariak
haiekin partekatzen.



GAIXORIK DAGO GURE ETXEA


Batzuetan, gaixo jartzen gara pertsonak, eta animaliak ere gaixo jartzen dira batzuetan… Eta gure etxea, pertsona guztion etxea, gure Lur planeta, gaixo dago. Gaixorik gaudenean, ondo zain gaitzaten behar dugu, senda gaitezen… Baina ez gara gure etxea, guztion etxea, Lur planeta, zaintzen ari; gaixorik dago, eta ez dugu zaintzen. Ez ditugu zaintzen ibaiak, ez eta itsasoak ere; ez ditugu zaintzen basoak, arnasten dugun airea...

Lurra, zure etxea, gure etxea, guztiona… denon artean zaindu behar dugu.



OTOITZA

Jainko aita,
oso mundu polita
eman diguzu opari,
baina ez gara zaintzen ari.
Irakats iezaguzu
gure planeta
guztiontzako etxe
bihurtzen.



Ostirala

ZERGATIK HARTZEN NAUTE GAIZKI?

Familia batean haurtxo bat jaiotzen denean, asko pozten gara guztiok, eta ospatu egiten dugu. Bada, munduan, toki batzuetan, mutikoen jaiotza ospatu egiten dute, baina ez neskena. Zergatik gertatzen da hori? Askotan, emakumeak gizonen azpitik daudela pentsatu izan da, mutilek agindu behar dutela, indartsuagoak direlako. Hori aldatuz doa pixkana, baina oraindik badago zer eginik.

Mukami naiz, eta Kenyakoa naiz. Gure herrian, ez da gauza bera mutila edo neska izatea: mutilak eskolara joaten dira, eta neskak etxean gelditzen gara, animaliak zaintzen… Batzuetan, gaizki hartzen gaituzte mutilek, eta ez die inork fitsik esaten... Zergatik hartzen naute gaizki? Zergatik ez gara berdinak neskak eta mutilak?



OTOITZA

Jainko aita,
sufrimendu handia pairatzen dute
neska askok, neska izate hutsagatik.
Lagun iezaguzu mundu hobe bat
eraikitzen, pertsona guztiok,
txiki nahiz heldu,
ondo tratatuko gaituen mundu bat egiten.

